

MASTER AMAIERAKO LANA (MAL) PRESTATZEKO ETA DEFENDATZEKO GIDA

**Psikodidaktika: Hezkuntzaren Psikologia eta Berriazko Didaktikak
Unibertsitate Masterra**

Masterreko Batzorde Akademikoa

Joana Jaureguizar Alboniga-Mayor, Álex Ibañez-Etxeberria eta Eider Goñi Palacios

Aurkibidea

1. Master Amaierako Lanaren (MAL) xedea eta helburuak
2. Gaia, ikerketa lerroak eta proposamenak zehaztea
3. MALa hautatzeko prozesua eta prozedura
4. MALaren egitura eta MALa idazteko eta aurkezteko jarraibideak
5. MALaren zuzendariaren eginkizunak eta betebeharrak
6. MALaren defentsa eta ebaluazioa

1. Master Amaierako Lanaren (MAL) xedea eta helburuak

Master Amaierako Lana (aurrerantzean MAL), banakako jarduera akademiko bat da, eta 12 ECTS kreditu ditu. Bertan, ikasleak ikerketaren hastapeneko lan bat egin beharko du, UPV/EHUko Psikodidaktikako Masterreko irakasle baten zuzendaritzapean.

MALaren xedea da masterreko ikasleak erakustea bereganatu dituela masterreko irakasgaietan landutako ezagutzak eta gaitasunak, bereziki ikerketa metodologiari buruzkoak. Hortaz, berariazko helburua ikerlan bat diseinatzea, inplimentatzea, idaztea eta aurkeztean datza, eta lan hori epaimahai baten aurrean defendatzea, bere ikerketarako gaitasuna erakusteko/frogatzeko.

Irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuaren arabera, unibertsitate-irakaskuntzen antolamendua eta horien kalitatea bermatzeko prozedura ezartzen dituenak, MALren helburua da ikasleak lortu dituen ezagutza, gaitasun eta trebetasunen menderatze-maila egiaztatzea, horiek gainditzea ezinbestekoa baita titulu ofiziala lortzeko. Psikodidaktikako Masterreko Tituluaren egiaztapen-memorian jasotzen dira MALaren gaitasunak, eta hurrengoak dira:

- C1. Beharrezko trebetasunak eskuratzea arazoak definitzeko, ikerketak diseinatu eta gauzatzeko, datuak estatistikoki aztertzeko eta txosten zientifiko bat zuzen idazteko.
- C2. Ikerketetako, txostenetako eta hezkuntza lanetako datu kuantitatiboak eta kualitatiboak aztertzea eta interpretatzea.
- C3. Ikerketa diseinuak eta hipotesiak formulatu eta kontrastatzeko prozedurak ezagutzea.
- C4. Hezkuntza arloko ikerketarako dokumentu iturri esanguratsuak erabiltzea.
- C5. Hezkuntza prozesuetan parte hartzen duten aldagaiak deskribatzeko eta neurtzeko gai izatea.
- C6. Ikerketa zientifikoak hezkuntza ezagutzari egiten dizkion ekarpenak kritikoki baloratzea.

MALak banakakoa eta originala izan behar du. Ikerlan bat izango da, eta Psikodidaktikako Masterra egin bitartean osatu beharko da, aurreikusitako egutegiaren arabera. MALa Jabetza Intelektualaren Legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titulartasuna lana egin duenari dagokio, ez bada ikasle bakoitzak onartutako MALaren esleipen-

agirian beste modu batean ezarri. Edozein kasutan, baldintzak indarreko legerian aurreikusitakoak izan behar dira.

2. Gaia, ikerketa lerroak eta proposamenak zehaztea

MALean, hezkuntza arloko ikerketako proposamen bat gauzatu beharko dute ikasleek, Psikodidaktikako Masterreko ikerketa lerroren bat kontuan hartuta. Hona hemen ikerketa lerroak:

- Eskolako doitzea eta doitze pertsonala
- Aldagai psikoedukatioak eta ikaskuntza
- Hizkuntzaren eta literaturaren didaktika
- Zientzia esperimentalen didaktika. Matematikaren Didaktika.
- Musika ikastea dibertsifikatutako testuinguruetan
- Ikerkuntza arte hezkuntzan
- Jarduera fisikoa eta kirola
- Ezagutzaren gizartea, hezkuntza aldaketa eta gizarte kohesioa
- Ikerkuntza eta berrikuntza Geografia, Historia eta beste gizarte zientzia batzuen irakaskuntza-ikaskuntzan

MALean garatu beharreko ikerketari dagokionez, kontuan hartu behar da erabilitako datuak kualitatiboak (dokumentuak, legeak, hezkuntza programak, unitate didaktikoak, testuak..) edo kuantitatiboak (inkestak, eskalak..) izan daitezkeela, eta prozedura estandarizatu eta sistematiko baten bidez egin behar dela haien analisia.

Hezkuntzaren arloko genero-tratamendua edozein ikerketa-lerrotan sar daiteke zehar-lerro (edo zehar-irakasgai) gisa.

3. MALa hautatzeko prozesua eta prozedura

Psikodidaktikako Masterreko ikerketa lerroak urrian aurkeztuko dira, lehen eskola asteetan. Une horretatik aurrera, ikasleek MALerako gaiaren bilaketa aktiboari eta hautaketari ekingo diote, eta, horretarako, interesa dakizkiekeen lerroen gaineko iritziak trukatu dituzte irakasleekin.

Behin gai orokorra eta ikerketa lerroa hautatuta, eta zuzendaritzaren (MALaren zuzendaria) eta ikaslearen arteko lankidetzara adostuta, bien artean zehaztuko dute gaia, adostuta, eta gai horrek ikasleak hezkuntza arloko etorkizuneko ikertzaile gisa dituen interesari erantzun die, Masterraren prestakuntza jardunaren baitan. Bien arteko adostasuna "MALaren proposamena" izeneko 1. Eranskinean jasoko dute. Bertan, oinarritzko datu akademiko eta pertsonalez gain, hauek ere jaso beharko dira: lanaren hizkuntza, lanaren izenburu orientagarria eta aurreikusitako helburuak, hipotesiak eta metodoak era orokor batean. Ikaslearen ardura izango da Masterreko Batzorde Akademikoko arduradunari dokumentu hori helaraztea, bi aldeek behar bezala sinatuta eta horretarako adostutako datetan.

4. MALaren egitura eta MALa idazteko eta aurkezteko jarraibideak

MALa antolatzeko eta aurkezteko egitura estandarra erabili behar da, honako honen arabera:

AZALA, IDENTIFIKAZIORAKO DATUEKIN

- izenburua
- egilea
- zuzendariare/en izena/ak
- aukeratutako ikerketa lerroa
- zuzendariaren saila
- [UNESCO](#) kodeak
- non eta noiz entregatu den

AURKIBIDEA

LABURPENA/ABSTRACT

15 lerroko paragrafo bakarra

HITZ GAKOAK

Izenburuan aurkiten ez ditugun lau eta sei bitarteko hitz gakoak

SARRERA (MARKO TEORIKOA)

- Gaia
- Problematika (aurrekariak, aurretiko ikerketaren egoera)
- Ikerketa arazoaren planteamendua
- Lankidetzaren helburuak
- Hipotesiak, galderak, aurreikuspenak...

AZTERKETA ENPIRIKOA

- Metodoa
 - Diseinua
 - Parte hartzaileak
 - Aldagaiak eta neurtzeko tresnak
 - Prozedura (ikerketaren garapena)
 - Datuen analisia
- Emaitzak
- Ondorioak (emaitzen gaineko eztabaida barne)
- Erreferentzia bibliografikoak

MALa idazteko eta aurkezteko jarraibideei dagokienez, lana euskaraz, gaztelaniaz edo ikaslearen eta zuzendariaren artean adostutako beste edozein hizkuntzatan aurkeztu ahal izango da.

Gutxienez 20 orri eta gehienez 25 izango ditu, eranskinak kontuan hartu gabe; azala eta aurkibidea izan ezik, beste orri guztiak zenbakituta egongo dira, eta zenbakia goiko aldean idatziko da, eskuinean. Eranskinak ere kontuan hartuta (halakorik balego), lanak 30 orri izango ditu gehienez.

Times New Roman letra mota edo antzekoren bat erabiliko da, 12 tamainan eta 1,5 lerroartearekin.

Marjina hauek erabiliko dira: 3 cm goiko eta ezkerreko marjinetan, eta 2,5 cm beheko eta eskuineko marjinetan. Testu justifikatua erabiliko da. Era berean, testu prozesadoreek lehenesten dituzten marjinak ere onartuko dira, hau da, 2,54 cm marjina bakoitzean.

Ez da komeni azpimarratzea eta letra lodia gehiegi erabiltzea. Ataletako goiburuak nabarmentzeko erabiliko da letra lodia.

Testuko aipamenak eta bibliografia APA arauen arabera egingo dira ([7. edizioa](#)). Lanak bertsio digitalean aurkeztuko dira, PDF formatuan, paperezko kopia batekin batera.

5. Zuzendariaren, ikaslearen eta kalifikazio epaimahaiaren eginkizunak eta betebeharrak

Ikerketa lerroak aurkeztu, eta ikasleak eta zuzendariak harremanetan jarri ostean, honako hauek izango dira **zuzendariaren eginkizunak**:

- Lanaren ezaugarriak azaltzea ikasle bakoitzari.
- Ikasleak proposatutako gaien egokitasuna baloratzea.
- Lana egiteko orientazioa ematea ikasleei.
- Lanari jarraipena egitea.
- Prozesua eta emaitza ebaluatzea (II Eranskina) eta GAURera igo.
- Eskatuko baliote, MALen epaimahaiko kide izatea eta dagozkion aktak betetzea.
- Ikasle bakoitzaren notak grabatzea eta espedientean jartzea.

Aitzitik, ez dira MALaren zuzendariaren betebeharrak ikaslearentzat bilaketa bibliografikoak egitea, hari lan erritmoak eta aurkezpen epeak gogoraraztea, aurkeztutako dokumentuetan zuzenketa ortografikoak edo idazkerakoak egitea, plagio arazorik ote den egiaztatzeaz arduratzea edo gutxieneko lanketa maila ez duten zirriborroak onartzea.

Hauek dira **ikaslearen eginkizunak**:

MALa egiteko beharrezkoak diren jarduerak gauzatzea: gaia aukeratzea (lan proposamena prestatzea), plangintza egitea (kronogramaren proposamena), lana garatzea (jarraipenerako eta azterketarako txostenak), lana entregatzea, aurkeztea eta defendatzea. Horretarako, inplikatu egin behar du MALaren prestaketan, eta, ekarpenak egiteaz gain, jardun autonomoan oinarritutako ikuspegi pertsonalizatua erabiliz bete behar ditu dagozkion zereginak. MALa aurkeztuko da telematikoki, ADDI akademikoa izeneko plataforma bidez; horretarako argibideak jarraituko dira.

MALaren kalifikazio epaimahaiek hiru kide izango dituzte, Masterreko Batzorde Akademikoak izendatuak. Hauek dira **kalifikazio epaimahaiaren eginkizunak**:

- Karguak banatzea (epaimahaiko burua, idazkaria eta kidea).
- Aurkeztutako MALak ebaluatzea.
- Erabakiak hartzea eta bakarka betetzea ebaluazio txostena.
- Epaimahaiko gainerako kideekin batera betetzea MALaren Defentsa Akta, kontuan hartuta zuzendariaren kalifikazioaren ehunekoak.

- Epaimahaiko idazkariaren ardura izango da MALaren Defentsa Akta idaztea.

6. MALaren defentsa eta ebaluazioa

Aurretik deskribatutako prozesua amaitutakoan, MALaren defentsa fasea iritsiko da. Defentsa publikoa da, eta epaimahai baten aurrean egiten da. **Aurretiko baldintza** gisa, ikasleak gaindituta izan behar ditu bere Prestakuntza Planeko gainerako irakasgai guztiei dagozkien kredituak.

Ebaluaziorako oinarritzko irizpideak jasota daude MALaren Ebaluazio Errubrika izeneko dokumentuan (III Eranskina).

Epaimahai bakoitzak hiru kide izango ditu (Lehendakaria, Idazkaria eta Mahaikidea) eta ordezeko bat; guztiek beteko dituzte MALak zuzentzeko irakasle-dotoreen baldintzak. Ahal den neurrian, epaimahai bakoitzeko kideek ez dituzte ebaluatuko beraiek zuzendutako lanak.

Epaimahaikideek ebaluatu behar duten MALa eskuratu ahal izango dute, baita zuzendariak sinatutako Defentsarako Baimena ere; eskuragarri izango dira ADDI eta GAUR bidez, hurrenez hurren.

Adierazienez, **defentsa** publikoa izango da, eta behar besteko aurrerapenaz iragarriko da noiz eta non egingo den. MAL bat ezin izango da inolaz ere gaindituztat jo, ez badu egileak defendatu dagozkion datan eta moduan.

Ikasle bakoitzak 15 minutu izango ditu lana azaltzeko, eta ikus-entzunezko bitarteko ohikoenak erabili ahal izango ditu. Ondoren, epaimahaikideek galderak, komentarioak eta iradokizunak luzatu ahal izan dituzte, eta ikasleak aukera izango du horiei erantzuteko. Defentsa bakoitzak **30 minutu** iraungo du gehienez.

Defentsa amaitzean, epaimahaikideek zenbakizko kalifikazio bat emango diote lanari, Ebaluazio Errubrikaren arabera; lanaren zuzendariak emandako kalifikazioa ere aintzat hartuko da.

Eztabaidarako epea amaitzean jakinaraziko zaio kalifikazioa ikasleari.

Epaimahaiko burua arduratuko da aktak masterreko idazkaritzan aurkezteaz, behar bezala beteta; hala badagokio, aipamen berezia egiteko proposamena ere adierazita egongo da akta horietan.

I. ERANSKINA

MASTER AMAIERAKO LANAREN PROPOSAMENA

Ikaslea:

Ikerketa lerroa:

Lana zuzenduko duten irakasleak:

Izenburua:

Helburuak:

Metodoa:

Ikaslearen sinadura

Irakaslearen sinadura

Lekua eta eguna:

MASTERREKO BATZORDE AKADEMIKORA bidaltzeko

joana.jauregizar@ehu.eus

ANEXO II

Máster Psicodidáctica: Psicología de la Educación y Didácticas Específicas Psikodidaktika: Hezkuntzaren Psikologia eta Berriazko Didaktikak Masterra

Curso Académico/ Ikasturtea: 20..

TRABAJO DE FIN DE MÁSTER /MASTER AMAIERAKO LANA

(Visto Bueno profesor/a tutor/a/ Tutorearen oniritzia)

Datos del TFM / MALaren datuak:

Alumno/a /Ikaslea:	_____
Tutor/ Tutorea:	_____
Título del TFM / MALaren izenburua:	_____

Calificación provisional y autorización de presentación / Behin-behineko kalifikazioa eta aurkezteko baimena:

Calificación (de 0 a 10)/ Kalifikazioa (0tik 10era)	_____
Justificación /Justifikazioa:	_____

Autorización para presentar el informe al acto público de Fin de Máster / Master-amaierako ekitaldi publikoan txostena aurkezteko baimena: Sí / Bai

Fdo. / Izpta:

Donostia-San Sebastián, el _____ de _____ Donostian, 202_eko _____ren __a
_____ de 202_

EPAIMAHAIK MASTER AMAIERAKO LANA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK
RÚBRICA DE EVALUACIÓN DEL TRABAJO FIN DE MÁSTER POR PARTE DEL TRIBUNAL

DATA/FECHA:	
EGILEA/AUTORÍA:	
ZUZENDARITZA/DIRECCIÓN:	

EPAIMAHAIA	
BURUA/PRESIDENTE:	
BOKALA/VOCAL:	
BOKALA/VOCAL:	

EBALUAZIO IRIZPIDEAK/ CRITERIOS DE EVALUACIÓN	BURUA NOTA 0-10	1 BOKALA NOTA 0-10	2 BOKALA NOTA 0-10	%
GAIA (5%)				
Vinculación con los procesos de aprendizaje y cuestiones didácticas, interés, relevancia, originalidad, <i>Ikaskuntza-prozesuekiko eta gai didaktikoekiko lotura, interesa, garrantzia, originaltasuna, konplexutasuna...</i>				0
ABSTRACT (5%)				
Contiene las ideas esenciales de la investigación. Concretamente se presentan los objetivos, la muestra utilizada, los principales resultados y las conclusiones. <i>Ikerketaren funtsezko ideiak jasotzen ditu. Zehazkiago, helburuak, erabilitako lagina, emaitza nagusiak eta ondorioak aurkezten dira.</i>				0

MARKO TEORIKOA/MARCO TEÓRICO (10%)				
Fundamentación teórica completa y actualizada, análisis de investigaciones previas acordes con los objetivos propuestos, las fuentes bibliográficas son pertinentes y relevantes con el objeto de estudio. <i>Oinarriztapen teoriko bete-betea eta gaurkotua; proposatutako helburuekin bat datozen aurreko ikerketen analisia; iturri bibliografikoak egokiak eta garrantzizkoak dira ikergaiarekiko.</i>				0
MARKO PRAKTIKOA/MARCO PRÁCTICO (10%)				
Formula los objetivos de forma clara, las hipótesis, interrogantes... son coherentes y están adecuadamente formuladas, el diseño de la investigación es apropiado, la muestra así como los instrumentos y/o técnicas y registro de los datos, las fuentes utilizadas y el procedimiento se describen convenientemente, los procedimientos para la recogida de datos son pertinentes, el tipo de análisis realizados, así como la presentación de resultados son adecuados. <i>Helburuak argiro formulaturik daude; hipotesiak edota ikerketa galderak koherenteak eta egoki adierazita daude; ikerketaren diseinua egokia da; lagina, aztertzeko tresnak, teknikak edota datuen erregistroa eta prozedura behar bezala deskribatuta daude; datuak biltzeko bideak egokiak dira; egindako azterketa-mota eta emaitzen aurkezpena egokiak dira.</i>				0
EZTABAIDA ETA ONDORIOAK/DISCUSIÓN Y CONCLUSIONES (10%)				
Se discuten los resultados con los autores que se han presentado en el marco teórico, se argumentan las conclusiones convenientemente, se defiende la utilidad del trabajo, se presentan las limitaciones del estudio y se proponen líneas de investigación futuras. <i>Emaitzak marko teorikoan aurkeztutako egileekin eztabaidatu dira; ondorioak behar bezala argudiatu dira; lanaren balioa defendatu da; ikerketaren mugak aurkeztu dira eta geroko ikerketa-lerroak proposatu dira.</i>				0
IDATZIZKO AURKEZPENA/PRESENTACIÓN ESCRITA (10%)				
Se ha presentado el trabajo de forma clara y organizada, las ideas se expresan de forma coherente, se utiliza el lenguaje de forma correcta (sin errores gramaticales ni ortográficos) y se aplican las normas APA (7ª edición) de forma correcta, tanto dentro del texto, como en las referencias bibliográficas. <i>Lana argi eta behar bezala antolatuta aurkeztu da; ideiak era koherenteak adierazi dira; hizkuntza zuzentasunez (akats ortografiko eta gamatikalik gabe) erabili da; eta APA arauak (7. edizioa) egoki aplikatu dira, bai testu barruan bai erreferentzia bibliografikoetan.</i>				0

AHOZKO AURKEZPENA/PRESENTACIÓN ORAL (10%)				
<p>Presenta el trabajo de forma clara y organizada, utiliza el lenguaje de forma correcta y precisa u otras estrategias de comunicación (como la visual...), argumenta sus ideas adecuadamente, responde a las preguntas del tribunal adecuadamente, no excede el tiempo de presentación (15'), utiliza adecuadamente el soporte de la presentación (ppt...)</p> <p><i>Lana argiro eta behar bezala antolatuta aurkeztu da; hizkuntza zuzentasunez eta zehaztasunez erabili da; epaimahaiaren galderei egoki erantzun die; aurkezteko denbora (15') ez du gainditu; aurkezpenerako euskarria (PPT...) zuzen erabili du.</i></p>				0
ZUZENDARIAREN BALORAZIOA/VALORACIÓN DEL DIRECTOR/A (40%)				
<p>En este apartado el director o la directora valorarán el proceso que ha seguido el alumnado a lo largo de la elaboración del trabajo, así como su interés y actitud, el respeto por los tiempos de las entregas...</p> <p><i>Atal honetan, zuzendariak baloratuko du ikasleak MALa egiteko jarraitu duen prozesua, erakutsi duen interesa eta jarrera, kronograma errespetatu duen, eta abar.</i></p>				0
GUZTIRA/TOTAL				0

AZKEN KALIFIKAZIOA (AKTA)/CALIFICACIÓN FINAL (ACTA)				
AIPAMEN BEREZIRAKO PROPOSAMENA / PROPUESTA DEL TRIBUNAL PARA MENCIÓN ESPECIAL			BAI/SI	
			EZ/NO	

OHARRAK/NOTAS	
<p>Hizkuntzaren erabilera ez sexista beharrezkoa izango da lan guztietan. En los trabajos se deberá utilizar un lenguaje no sexista.</p>	